

'Berrikuntza irekia' bultzatuz

"Gure apustua argia da: bezeroak gure berrikuntza estrategiaren erdian egon behar du", Enrique Monzonis, EROSKIren Berrikuntza arloko zuzendaria

- Aurten, EROSKIk mekanismo berriak jarriko ditu martxan irtenbide disruptiboak identifikatu eta testatzeko
- Taldea programa bat lantzen ari da, *venture client* erakoa, zertarako eta erronka berriei heltzeko *startup*-en laguntzarekin
- 2020an, EROSKIk lankidetzak erako 20 berrikuntza ekimenetan baino gehiagotan parte hartu du; horietako 5 Europako lankidetzak proiektuak izan dira, 80 eragilerekin baino gehiagorekin gauzatuak, hala nola enpresak, gune teknologikoak, unibertsitateak eta *startup*-ak

Elorrio, 2021eko otsailaren 26a.- [EROSKI](#)ren Berrikuntza, Eraldaketa Digitala eta Informazioaren Teknologien arloko zuzendari Enrique Monzonisek zera berretsi du (lehenengo aldiz egiten den) "[South Summit Biscay Startup Bay](#)"-ren lehen agerraldian, taldea bultzada berri bat ematen ari dela 'berrikuntza irekia' delakoaren alde, bezeroari erantzun berriak eskaintzeko motor gisa. Alde horretatik, lankidetzak era berriak planteatzen dira ekintzailetasunaren ehunarekin.

*"Berrikuntza irekia gure berrikuntza ereduaren parte da; horregatik, berritzeko gure ahalegina areagotzen ari gara ehun ekintzailearekin lankidetzan, betiere gure bezeroei erantzunak eskaintzeko asmoz", esan du Monzonisek. "2021ean, irtenbide disruptiboak identifikatzeko eta testatzeko mekanismo berriak jarriko ditugu martxan, betiere gure bezeroen beharrak asetzeari begira. Gure jarreran eredu dugu *venture client*; eta zailtasunak gainditzea da gure gogoak, *startup*en eskutik testatzeko moduko abangoardiako soluzioak bilatuz bai gure ingurunea bizkortzeko programetan sortuak eta bai nazioarte mailan sortuak", zehaztu du.*

Ekintzailetasunaren ekosisteman giltzarrizkoak diren eragileei hitz egin dienean, Enrique Monzonisek balioan jarri du *"EROSKI* duen kultura kooperatiboa, abantaila ematen baitigu lankidetzak proiektuei heltzeko orduan, baita lankidetzak esparru berri bat ezartzeko orduan ere lehiakortasunaren arloan abantaila berriak eraikitzeari begira. EROSKI lehentasunen ardatzean ditu honako hauek: *erosketa esperientzia arin, erraz eta pertsonalizatua; produktu eta marka bereizgarri berriak; elikadura eta ohitura osasungarriak eta iraunkorrak sustatzeko modua ematen duten soluzioak;*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa



eta bezeroei aurrezpena transferitzea salmenta guneko eta hornidura kateko operazioetan eraginkortasuna hobetuta".

Lab denda

EROSKIren Berrikuntzako, Eraldaketa Digitala eta Informazioaren Teknologien arloko zuzendariak azaldu duenez, 'Lab denda' bat garatzen ari dira: *"Salmenta gune bateko operazioen efizientzia erronkei soluzio berritzaileak bilatzea da asmoa, egiazko esperimendazio ingurune bat erabilita.*

Berrikuntza, giltzarrizkoa EROSKI n

2019an, EROSKIk martxan jarri zuen berrikuntza eredu berri bat, 'ekinn'. Metodo, tresna eta dinamika multzo bat da, berrikuntza eran emana eta erakundean integratua bere posizionamendu diferentzialari bultzada emateko. *2020an, EROSKIk lankidetzak erako 20 berrikuntza ekimenetan baino gehiagotan parte hartu du; horietako 5 Europako lankidetzak proiektuak izan dira 80 eragilerekin baino gehiagorekin gauzatuak, hala nola enpresak, gune teknologikoak, unibertsitateak eta startup-ak.*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel.: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

Online prentsa aretoa